

2020an Euskal AEn jarduera duten enpresetako enpleguak gora egin du, baina kopuruak behera egin du

Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna, Informazioa eta komunikazioa eta Eraikuntza dira enplegu garbi gehien sortzen duten jarduera-sektoreak

Euskal AEn jarduera-sektoreetako 153.971 enpresak ziharduten 2020ko urtarrilaren 1ean, aurreko urtean baino 3.387 enpresa gutxiagok (–% 2,1), Eustatek emandako datuen arabera. Enpresa horiek beren jarduerak 171.371 establezimendutan betetzen zituzten (fabrikak, saltokiak, bulegoak...), eta 3.400 gutxiago (–% 1,9) erregistratu ziren. Establezimendu horiek honela banatzen dira: % 14,4 Araban; % 52,0 Bizkaian, eta % 33,6 Gipuzkoan.

Establezimendu horietan enplegatutako langile-kopuruak gora egin zuen bosgarren urtez jarraian; % 1,1 azken urtean. Jarduera-sektoreen arabera, langileen kopuruak honako sektore hauetan egin zuen gora, besteak beste: *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna* (% 3,0), *Informazioa eta komunikazioak* (% 2,1) eta *Eraikuntza* (% 1,9). Berriz, enplegatutako pertsonen kopuruak honako sektore hauetan bakarrik egin zuen behera: *Finantzen eta aseguruaren jarduerak* (–% 4,4), *Higiezinaren jarduerak* (–% 2,5) eta *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza* (–% 1,7).

Pertsonak enplegudunen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera. 2020/01/01


	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Δ%		Δ%		Δ%		Δ%	
Guztira	100,0	1,1	100,0	0,7	100,0	1,3	100,0	1,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,3	-1,7	2,4	3,1	1,0	-1,9	1,2	-5,7
Industria, energia eta saneamendua	19,9	0,5	26,1	-0,7	15,2	0,9	23,9	0,7
Eraikuntza	5,8	1,9	4,4	3,4	6,5	3,0	5,4	-0,7
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	25,7	0,6	23,1	2,2	26,5	0,1	26,0	0,5
Informazioa eta komunikazioak	2,4	2,1	1,7	-2,0	3,1	3,2	1,8	1,5
Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	1,7	-4,4	1,2	-7,7	2,0	-3,5	1,6	-4,7
Onibar-jarduerak	0,5	-2,5	0,4	5,8	0,6	-3,0	0,5	-4,6
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	14,6	0,6	11,5	-3,4	17,1	1,0	12,3	1,7
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	23,4	3,0	25,2	1,9	23,3	3,1	22,6	3,4
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	4,5	1,5	4,1	5,0	4,6	0,7	4,7	1,4

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Kopuruari dagokionez, establezimendurik gehien izan duen sektorea *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* izan zen,% 36,1; ondoren, *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,4) eta *Eraikuntza* (% 11,7).

Establezimenduen tamainaren arabera banaketa aurreko urtean bezalatsu izan zen. 2.555 establezimenduk –guztien% 1,5– baino ez dituzte batez beste 50 langile edo gehiago enplegatzen; baina, oro har, enplegatutako pertsona guztien % 41,5i ematen zioten lana. 124.463 establezimendu –guztien ia hiru laurdenak–, berriz, tamaina txikikoak dira (3 enplegatu baino gutxiago), eta bertan, enplegatu guztien % 16,5 zeuden.

Euskal AEn enplegatuten eta establezimendu kopuruaren banaketa, jardueraren arabera. 2020/01/01



Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoaren direktorioa

Establezimenduen jardura-adar nagusien arabera banaketa aurreko urtean bezalatsu izan zen, enplegatuen kontzentrazio handiena *Industria, energia eta saneamenduen* sektorean erregistratu zen, eta Euskal AEn, oro har, establezimenduko batez besteko tamaina 16,4 langilekoa da. Araba nabarmentzen da (20,3 langile), eta batez besteko tamaina Bizkaian 14,5 da eta Gipuzkoan, 16,6 langile establezimendu bakoitzeko.

Sexuaren arabera, 2019an Euskal AEn pertsona enplegatuen % 43,8 emakumeak ziren, aurreko urteko antzeko proportzioan. Sektore feminizatuenak honako hauek izan ziren: *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna* (% 66,2 emakumeak), *Jardura finantzarioak eta aseguru-eta* (% 55,0), *Arte-jarduerak eta beste zerbitzu batzuk* (% 54,9) eta *Higiezen jarduerak* (% 49,7). Honako sektore hauetan, berriz, gizonak dira nagusi: *Eraikuntza* (% 89,9 gizonak), *Industria* (% 79,2) eta *Lehen sektorea* (% 77,9).

Enplegatuen banaketa ehunekotan Euskal AEn jarduera-adarren (A10) arabera, lurralde eta sexuari jarraiki. 2020/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	56,2	43,8	57,9	42,1	55,5	44,5	56,3	43,7
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	77,9	22,1	78,1	21,9	80,1	19,9	74,9	25,1
Industria, energia eta saneamendua	79,2	20,8	80,0	20,0	79,5	20,5	78,5	21,5
Eraikuntza	89,9	10,1	88,8	11,2	89,8	10,2	90,4	9,6
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	54,6	45,4	54,4	45,6	55,3	44,7	53,5	46,5
Informazioa eta komunikazioak	63,9	36,1	62,9	37,1	64,1	35,9	64,1	35,9
Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	45,0	55,0	45,4	54,6	45,2	54,8	44,4	55,6
Onibar-jarduerak	50,3	49,7	52,3	47,7	50,5	49,5	49,2	50,8
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	51,8	48,2	55,4	44,6	51,3	48,7	51,1	48,9
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	33,8	66,2	34,6	65,4	34,2	65,8	32,8	67,2
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	45,1	54,9	43,6	56,4	46,7	53,3	43,5	56,5

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoaren direktorioa

ENPRESAK

Enpresa guztien (establezimenduen jardueren euskarri diren unitate juridikoak) % 97,2k Euskal AEn zuen egoitza eta 4.251k, Estatuko beste leku batean. Erdiak baino pixka bat gehiagok, 77.770 enpresak, Bizkaian zuten egoitza; 50.671k (% 32,9), Gipuzkoan, eta 21.279k (% 13,8), Araban.


Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 6,0 enplegatu enpresako eta 5,4, establezimendu bakoitzeko. Nortasun juridikoaren arabera analizatuz, berriz, alde nabarmenak daude. Forma juridikoa pertsona fisikoa duten titularrak 1,4 enplegutara baino ez ziren heldu, bai enpresako bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako, ordea, batez besteko horiek 12,6 eta 10,1 pertsonakoak dira, enpresa eta establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresek dituzten urteak direla eta, Euskal AEko enpresen panoraman enpresa berri samarrak daudela azpimarratu behar dugu. Euskal AEn ari ziren enpresen % 32,5ek bost urte edo gutxiago zituzten, eta bi urte edo gutxiagokoak % 2,3 ziren.

Txandakatzea dela eta, establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuta, 2019an 13.374 establezimenduk hasi eta 16.774k eten zuten jarduera; alegia, saldoa negatiboa izan zen (3.400 establezimendu). Ireki zuten establezimenduen tasa (sortutako establezimenduen eta stock-ean dauden arteko zatidura) % 7,8koa izan zen eta itxitakoen tasa, % 9,7koa. Ondorioz, hazkunde garbiko tasa negatiboa izan zen (-% 1,9).

Establezimenduko jaiotza- eta heriotza-tasak. Euskal AE



Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta ixteari buruzko estatistika

Txandakatze handiena honako arlo hauetan gertatu da: *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* (alta guztien % 28,9 eta baja guztien % 33,6); *Jarduera profesional eta osagarriak* (alten % 19,0 eta bajen % 18,1), eta *Eraikuntza* (alten % 18,3 eta bajen % 18,0).

Nortasun juridikoaren arabera demografia aztertzean, pertsona fisikoaren formularen bidez sortutako establezimenduak nabarmendu behar dira; alten % 66,2 eta bajen % 60,4 eragin zuten.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2020/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Guztira	13.374	16.774	Guztira	13.374	16.774
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	211	475	Pertsona fisikoa	8.853	10.127
Industria, energia eta saneamendua	579	763	Akziokako elkartea	247	595
Eraikuntza	2.445	3.013	Elkarte mugatua	3.205	4.709
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	3.869	5.636	Bestelako elkarteak	1.045	1.313
Informazioa eta komunikazioak	433	415	Bestelako forma juridikoak	24	30
Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	290	482			
Onibar-jarduerak	311	496			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.545	3.036			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.514	1.407			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.177	1.051			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Pertsona enplegatuei dagokienez, pertsona fisikoaren forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrietan enplegatutako pertsonen % 39,7 hartu zuten eta desagertutako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 39,9.

Sozietate mugatuak ere nabarmentzen dira: alta emandako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 38,4 eta baja emandako establezimenduen % 34,1.

Establezimenduen tamainaren arabera, estraturik dinamikoena 2 enplegatu edo gutxiagokoa da, ohikoa den bezala. Berak bakarrik alta guztien % 90,1 eta baja guztien % 91,7 erregistratzen ditu.

Beste aldean, establezimendu handien (50 enplegatu edo gehiago dituztenak) estratua dela-eta, alten % 0,2 eta bajen % 0,1 baino ez dira. Aldiz, establezimenduetako pertsona enplegatuen alta guztien % 9,5 eta baja guztien % 8,8 dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62